



INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, ALTZOKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOA EGIN DEZATEN ERREFERENTZIAZKO AGIRIA EMATEKOA

1. AURREKARIAK

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura nahitaez bete behar da lur eremu hiritarrezinari eragiten dioten hiri antolaketako plan orokorretan eta haien aldaketetan, 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legeak, EAeko ingurumena babesteari buruzkoak, 41. artikuluan, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzkoak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera. Dekretu horrek 6. artikuluan ezartzen duenez, prozedura hori bete behar duen planen bat garatzeko asmoa dutenek dagokion ingurumen organoari galdetu ahal izango diote ingurumen eraginari buruzko azterketak izan behar duen informazio hedapen eta zehaztasun mailari buruz, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio azterketa egin ahal izateko.

Beste aldetik, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio eremukoak dira hiri antolaketako plan orokorrak (HAPO), eta lege horrek 9. artikuluan ezartzen duenez, ingurumeneko organoak erabakiko du, erasandako herri administrazioak eta interesatutako jendea identifikatu eta kontsultatu ondoren, zer hedapen eta zehaztasun maila izan behar duen ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenak. Hala, ingurumeneko organoak erreferentziako agiri bat egin behar du eta, agiri horretan, ingurumeneko helburuen ingurumen irizpide estrategikoak eta adierazleak nahiz kasuan -kasuan aplikagarriak diren iraunkortasun printzipioak sartu behar dira.

Ingurumen Zuzendaritzan 2008ko maiatzaren 19an jaso den idatzian, hiri antolaketako arauak ordeztuko dituen hiri antolaketako plan orokorra idazten hasi dela jakinarazten du Altzoko Udalak, eta ingurumen eraginaren azterketak zer hedapen eta zehaztasun maila izan behar dituen jakinarazi diezaioten eskatzen du. Azterketa hori egiteko interesgarri izan daitekeen beste edozein ikuspuntu ere jakinarazi diezaioten eskatzen du.

Eskaerarekin batera agiri bat igorri du Udalak, HAPOren jarduketa eremuaren eta helburu orokorren azalpen labur batekin. Plan orokorra udalerriko ezaugarri sozio-ekonomikoetara eta fisikoetara eta hierarkikoki gaineratik dauden planetako hirigintza xedapenetara egokitzea izan da Altzoko HAPO idaztean lortu nahi izan dena. Izan ere, gaur egungo arauetako garapenak agortuta daudenez, indarrean dagoen udal plangintza egokitu nahi da, garapen berriak burutu ahal izateko. Hauek dira HAPOren bidez landuko diren jarduketa nagusiak:

- Etxebizitza eta ekipamendu kopurua gehitzea Altzo Muinoko eremuan.
- Amategi Aldeko area industrialak zabaltzea.
- Altzo Azpiko errepidea zabaltzea, etxebizitzak egiteko aukera za balik utziz.
- Aparkaleku gehiago antolatzea.

Dokumentuan, beste aldetik, ingurune fisikoaren diagnostiko labur bat egiten da eta gerta litezkeen ingurumen eraginaren lehen zerrenda bat ematen da.

Dokumentu horretan bertan, erreferentziako agiri bat egin dezan eskatzen zaio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarri, alderdi hauek dituela:



- Ingurumen eraginaren azterketa egiteko aintzat hartu behar diren ingurumeneko estrategiak, planak eta arauak.
- Kasu bakoitzean aplikatu behar diren ingurumeneko irizpide estrategikoak, ingurumeneko helburuen adierazleak eta iraunkortasuneko printzipioak.
- Planaren eragin eremuan dauden ingurumen-interes bereziko baliabideak eta baliabide horientzako babes helburuak.
- Planari buruz kontsulatuak izan daitezkeen beste organismo eta erakunde batzuen erantzunak.
- Zuzendaritzak egokitzen dituen beste ohar batzuk.

Altzoko Hiri Antolaketako Plan Orokorra (HAPO) behin betiko onartzeko eskumen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio. Beraz, planen eta programen ingurumen eraginaren baterako ebaluazioan kontuan hartu behar diren alderdiei buruzko ebazpenak ematea Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari dagokio, 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 44. artikuluan dioenaren eta 2008ko maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuak, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoak, 11.2.1. c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskaera jaso duelarik, erasandako administrazioak eta interesatutako jendea identifikatu eta kontsultatzeko izapidea hasi du Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, hala aurreikusten baitu 9. artikuluan 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoak.

Txosten hau da plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. artikuluan aurreikusitako erreferentziako dokumentua, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak aurreikusitako kontsulta izapideari erantzuten dio.

2. EGINDAKO KONTSULTAK

Udalak administrazio eta erakunde hauek identifikatu eta kontsultatu ditu, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. artikuluan ezarritakoa betez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia
- IHOBE
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Partaidetza Saila
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituretako Zuzendaritza



- Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzia Elkarte
- Tolosako Udala
- Lizartzako Udala
- Leaburuko Udala
- Alegiako Udala
- Tolosaldea Garatzen
- Tolomendi
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa

Hauek dira erantzun dutenak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako Zuzendaritza Nagusia; Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza); eta IHOBE. Beste aldetik, Barne Saileko Larrialdietako Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza) a riskuei buruzko txosten bat igorri du. Agiri horien kopiak erantsi zaizkio txosten honi.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiak adierazpen hauek egin ditu Altzoko HAPO idazterakoan kontuan hartu behar diren alderdi hauek:

- Araxes ibaiak Gipuzkoan zehar egiten duen tarte osoa interes bereziko gunea da bisoi europarrarentzat (Mustela lutreola), espezie hori kudeatzeko plana onartzen duen 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren arabera.

Horregatik, IEBE azterketan kontuan hartu behar dira alderdi hauek:

1. Planteamendu berriak espezie horrengan eta horren populazio-dinamikan izan ditzakeen ondorioen eta eraginaren analisia, diagnostikoa eta balorazioa.
2. Bisoi gaur egun bizi den guneetako habitatak espezie horrentzat izan behar dituen baldintzak mantentzeko prebentzio neurriak.
3. Habitata lehengoratzeko neurri zuzentzaileak, baldin eta espezie horrentzat behar diren eskakizunak betetzen ez baditu.

Osasun Saila. Adierazten duenez, HAPOren baitan ez dago osasun publikoari nabarmen eragin liezaiokeen gorabeherarik. Ez dago, beraz, ingurumen eraginaren azterketa edo ebaluazioa egitean aintzat hartu beharreko funtsezko gorabeherarik, aintzat hartu behar izaten direnak eta proiektuaren ingurumen inguruari eragin diezaioketenak alde batera utzita.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketako Zuzendaritza. Plangintza orokorra behin betiko onartu aurretik, EAEko Lurralde Antolaketako Batzordeak bere garaian egingo duen azterketaren oinarri izango diren irizpideak ematen ditu bere txostenean. Izan ere, plangintzako proposamenak lurralde antolaketako agiriaren xedapenekin bat datozen eta proposamen horiek Eusko Jaurlaritzako eskumenei eragiten dieten aztertuko du bere txostenean. Hala, onartuta dauden lurralde antolaketakoa agiriaren (Lurralde antolaketako arazpideak; EAEko ibai eta erreka ertzak antolatze alorreko lurralde plana; Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza ekipamendutarako lurra sortzeko alorreko lurralde plana) eta tramitatzen ari direnetan (Tolosako eremu funtzionaleko alorreko lurralde plana) udalerritari buruz egiten diren iruzkin batzuk aurreratzen ditu, eta balorazio bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren eskumenei gaineko alorreko beste legeri batzuei buruz (etxebizitza publikoari buruzko estandarrak betetzea; mugiko rtasuna sustatzea; eta alorreko beste alderdi batzuei eragiten dieten xedapenak).



IHOBEK, berriz, txosten bat egin du *Lurzorua kutsa dezaketen jardueren eta instalazioen inbentarioan* dauden Altzoko udalerriko lursaileri buruz. Gogoratzen du, beste aldetik, beste edozein eremu ere inbentarioan sartu beharko dela, inbentarioan egoteak dakartzkion ondorioekin, baldin eta eremu horretan inoiz burutu bada legeri hauetan adierazitako jardueraren bat: lurraren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko 1/2005 Legeko eranskinak; eta lurra kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lur kutsatuak izendatzeko estandarrak ezartzen dituen 9/2005 Errege Dekretua. Halatan, baldin eta 1/2005 legeko 17. artikuluan agertzen diren egoeretako bateren bat gertatzen bada, lurraren kalitateari buruzko deklarazioa tramitatu beharra da ondorioetako bat.

Eusko Jaurlaritzako **Larrialdietako Zuzendaritzak**, azkenik, informazioa bidali du Altzoko HAPO idaztean kontuan hartu behar diren uholde, lurrikara, sute eta teknologia arriskuei buruz.

Erreferentziako dokumentu hau idatzi ondoren beste erantzunen bat jasotzen bada, bidali egingo zaio Altzoko Udalari ahalik eta lasterren, plan orokorra idaztean eta IEBE azterketa egitean kontuan har dezan.

3. INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK

HAPO idaztean gogoan hartzen diren ingurumen irizpideek bat etorri behar dute testu hauetan ezarritakoekin: EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002 -2020), Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa (2007 -2010), eta 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Aldi berean, HAPOk lagundu egin behar du Altzoko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planean proposatutako lerro estrategikoak betetzen, hau da, hirigintza plangintzarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten Agenda 21eko ekintzei erantzun behar die.

Beste aldetik, HAPOko xedapenak diseinatzeko orduan aintzat hartuko dira printzipio hauek, norabide iraunkorreko antolamenduari buruz Garapen Iraunkorreko Euskal Estrategian eta horri buruzko hainbat garapen dokumentutan¹ dauden irizpideekin bat etorritik:

- Lehenestea gune hiritar trinkoak eta era askotarikoak, dentsitate ertain edo handia eta erabileren nahasketa nahiz konplexutasun egokia dutenak, eta, beraz, saihestea dentsitate txikia edo oso txikia duten etxebizitza eta industria garapen berriak, baita etxe isolatuak eta atxikiak ere, zeren eta eredu hiritar barreiatu eta lausotu bat sendotzen baitute, eta lurzoru, energia eta material asko kontsumitzen.
- Egun dauden hiri-ehunen optimizatze funtzionala eta birmoldatzea sus tatzeta eta, beraz, lurzoruari nahiz baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko estrategia gisa, hiri-ehun horiek birgaitu, berregituratu edo zaharbertzea eta gune marjinalak lehengoratzea.
- Gune hiritar trinkotuak hiritik gertu eta egungo hiri-ehunean oinarrituta ezartzea eta, hartara, garraio publikoaren, oinezkoen eta bizikleten bidezko mugikortasun iraunkorra ahalbidetzea, eta ahalik eta gehien murriztea azpiegitura berrien beharra (bideak) eta zerbitzuen beharra (hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia, hondakin bilketa, eta abar).
- Garapen berriek ingurumenari ahalik eta gutxien eragitea eta, beraz, hiritartu beharreko alorren kokalekuak eta diseinuak erabakitzerakoan ahalik eta interferentziarik txikiena eragiten dutenak erabakitzea. Hartara, hainbat leku saihestuko dira, dela arrisku naturalak dituztenak (uholde arriskuko areak eta malda handiko zonak,...), dela arrisku teknologikoak

¹ 1 Hiri plangintzan aplikatzekoak diren iraunkortasunari buruzko irizpideak (2003); eta Hiri plangintza iraunkortasuneko irizpideekin idatzeko gidaliburua (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumeneko Saila).



dituztenak (sute arriskuak, jario arriskuak eta abar dituzten jarduerak), dela intereseko habitat naturalak dituztenak, dela paisaiaren kalitateko zonak direnak, eta dibertsitate biologikoa eta habitat naturalena mantenduko da, gune naturala hiri garapenetik babestuz edota hiri ehunean txertatuz.

- Bigarren egoitza estentsiboaren eskaintza, eta, oro har, lurzorua kontsumoan oinarritutako ereduak ahalik eta gutxiena sortzea. “Etxebizitza hutsa” bete dadin sustatzea.
- Balantze honetan duen eragin kaltegarria murriztea: baliabideak (ura, energia eta materialak), bai eraikuntzak, oro har (eraikinak, egiturak, hiritartzea...) bai haien funtzionamenduak eragindako hondakinak eta kutsatzaileak, zikloak ixtera bideratuta.
- Habitat gisa herriak duen oinarrizko izaera indartzea, etxebizitza funtsezko eskubide gisa bermatuz, kokapen, kopuru, irisgarritasun, kalitate eta prezio baldintza egokietan.
- Lurzoru hiritarrezinaren antolaketa egokia erabakitzea Lurraldearen Antolaketa Artezpideek nahiz Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen alorreko planak ezarritako antolaketa kategorien bitartez (eta jarduera babestu, onartu eta debekatuen matrizea aplikatuz) eta, hartara, landa ingurunea babestea eta oreka bat bilatzea landa ingurunearen garapen ekonomikoaren, landa inguruneak ekosisteman duen eginkizunaren (lehengaiak hornitea, ingurunea artatzea...) eta ingurumenak nahiz paisaiak behar dituzten kalitateko baldintza egokien artean.
- Udalerria antolatzean soinuaren aldagaia sartzeari. Hartara, HAPOn lurraldearen soinu-zonakapen bat sartuko da soinu-areaka, zaratari buruzko 2003ko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta hura garatzen duen 2007ko urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako araberako, kontuan hartuz soinu-zorguneak eta jatorri naturaleko soinu-erretsebak egon daitezkeen aurreko arauen araberako ezarritako. Eremuen harrera-gaitasuna erabakitzeke orduan kontuan hartuko dira soinu kalitatearen helburuak.

4. PLANAREN EREMUAN DAUDEN INGURUMEN INTERES BEREZIKO BALIABIDEAK ETA GUNEA, ETA BABESAREN HELBURUAK

Ingurumen Zuzendaritza Nagusian dagoen informazio bibliografikoa eta kartografikoa begiratuta eta beste administrazio batzuek emandako erantzunak kontuan hartuta, ondorengo baliabide hauskorak eta/edo baliotsuak identifikatu dira planaren aplikazio eremuan (Altzoko udal barrutia), eta horiei arreta berezia jarri beharko zaie HAPO eta dagokion IEBE a zterketa idazterakoan. Identifikatutako elementu bakoitzerako babes helburua definitu da. Ingurumen aldetik interes berezia duten elementuen zerrenda orientagarria da eta IEBE azterketarekin osatu beharko da, udalerraren ingurumen inbentario sakon baten bitartez.

- a) **Araxes ibaiko interes komunitarioko lekuak.** Oraindik erabaki daude interes komunitarioko leku horren kontserbazio helburuak. Hala eta guztiz ere, HAPOn helburuak izango dira eremu horren babes perimetroa ez okupatzea eta “Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior dituzten baso alubialak” 91.E0 lehentasuneko habitatari eragin oro saihestea.
- b) **Lurralde Antolaketako Artezpideetako “Araxes harana – Jazkugane eta Basabe” natura intereseko eremua** (udalerraren hegoalde erdia hartzen du). Eremu horren balio ekologikoak, kulturalak eta ekonomikoak gordetzea izan da eremu horrentzat HAPOn erabakiko den antolamendua eta, horregatik bada, behar duen babesa emango zaio eremu horri. Lurralde Antolaketako Artezpideetan, eremu horiei babes bereziko lur hiritarrez inaren antolamendu kategoria ematea iradokitzen da.



- c) **Uraren herri jabaria** eta herri jabari horren babes zor-gunea eta zain-gunea, Ur Legearen testu bateratuak eta horren garapen araudiak arautuak. EAEko Ibaiek eta errekek antolatzeke lurraldearen alorreko planak agindutakoa bete beharko da HAPOn. Uren kalitateari dagokionez, udalerriko hondakin urak egoki kudeatzeko irtenbideren bat aurreikusi beharko da HAPOn, eta behar beste neurri ezarri beharko dira uraren herri jabarira isurtzen den karga kutsagarria ez dadin areagotu tratamendu egokiren bat ezartzen den bitartean. Beste aldetik, HAPoko ordenantzaren arabera derrigorrezkoa izan beharko du landa etxeen guneetan arazkezta-sistema autonomoak jartzeak, eta jarduera industrialetako hondakin urei tratamendu egokia emateak.
- d) Araxes ibaia **interes bereziko eremua da bisoi europarrarentzat**, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana onartzen duen 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren arabera. Horregatik bada, eremu horretako proposatzen den antolamenduan bete egin beharko da kudeaketa plan horretan adierazitakoa. Beste aldetik, nahiz eta azken azterketetan ez den ibai horretan igarabarik atzeman (*Lurra Iutra*), Araxes ibaia leku interesgarria da espezie horrentzat, ibaia baldintza onean dagoenez eta espezie hori berreskuratzen-zabaltzen ari den hainba lekutatik gertu dagoenez. Planeko jarduketetan, beraz, espezie hori arroan birsartzea oztopa dezakeen edozein gorabehera saihestuko da.
- e) **Intereseko landaretza**. Egileor auzoko Begoñeta alderdian pago lizarra dago (*Carpinus betulus*) eta espezie horrek "urria" kategoria du Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan. Behar beste babesteko dira, beraz, espezie horretako oinak eta EAEko Natura Babesteko 16/1994 Legea aplikatuko da, eta espazio hori dagoen alderdiak "babes bereziko alderdi" izendatzeko aukerarik badagoen aztertuko da HAPOn.
- f) **Altzoko pagoa**, Oiarbide baserriaren aldamenean dagoena: zuhaitz bereziaren kalifikazioa du eta, beraz, EAEKO Naturagune Babestuen Sarean barruan dago. Horri dagokionez, EAEko Natura Babesteko 1994ko ekainaren 30eko 16/94 Legeko eta 1995eko maiatzaren 16ko 265/95 Dekretuko babes arauak beteko dira.
- g) **EAEko korridore ekologikoen sarearen elementuak**. "Araxesko arana-Jazkugañe eta Basabe" natur espazioa, Aralar-Aiako Harria korridore ekologikoaren barruko *lotura area* izendatu dute (area horretako 268 ha Altzoko udalerrikoak dira). Alderdi hori kontserbatu egin behar da, Korridoreen Sareko espazio ardatzen artean zubi-lana egin behar baitu.
- Beste 408.1 ha Korridoreen Sareko "moteltze areakoak" dira. Kategoria horretan dauden alderdietan kudeaketa-helburu hauek ezartzea gomendatzen da: natura landaredia babestu eta, behar izanez gero, berrosatzea eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako aprobetxamenduak garapen iraunkorreko arauen arabera ustiatzea.
- Azkenik, Araxes erreka, Altzoko zatian, "loturazko interes bereziko ibai zatia" bezala kalifikatzen dute, eta, beraz, bideak mantendu eta hobetu beharko dira eta, bereziki, ur-bazterrak, bideen osotasuna eta haien lotura funtzioa hobetzen laguntzeko.
- h) **Akuiferoak kutsatzeko arrisku handia edo oso handia duten areak**: erdialdeko kareharrizko mendietan eta udalerrriaren hegoaldean daude. Eremu horien antolatzean, jarduera kutsagarriak saihestuko dira eta, era berean, baldintzak ezarriko dira nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak ez dezaten eraginik izan lurrazpiko ur baliabideen kalitatean.
- i) **Babestutako eremuak 2000/60/CE Uraren Zuzentarau Markoaren arabera**. Altzoko udalerrian babestutako bederatzi eremu izendatu dira giza kontsumora bideratutako azalera bilketetarako. Beste aldetik, udalerrriaren zati handi bat (Otsabio mendiaren inguruak) "**ur mineralen eta termalen babes perimetroa**" da Insalus enpresaren xedera (edateko ur ontziratuei buruzko 1972ko urriaren 26ko 3069/72 Dekretuan eta dekretu horren aldatetetan



dago araututa gorabehera hori). HAPOn behar beste babestu behar dira akuiferoak eta ur-hartuneak.

- j) **Paisaia katalogatuak.** Otsabio mendiaren inguruan, Altzoko udalerriko 298 ha, Lizartzako paisaia arroakoak, katalogatuta daude EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuan. HAPO diseinatu eta formulatzea paisaiaren ikuspuntua sartu behar da, eta inguru horretan paisaia-eraginak saihesten saiatu behar da.
- k) **Baso autoktonoak.** Zuhazti autoktonoen masak (haritzia-baso mistoa, pagadia, pinudiak, haltzadiak, eta abar.) HAPO idazterakoan hostozabal autoktonoen masak mugatuko dira, eta masa onenak izendatzeko aukera aztertuko da, "babes bereziko" lurzoru hiritarrezinaren antolamenduaren sailkapenaren barruan, Lurralde Antolaketakoko Jarraibideetan ezarritako irizpideari jarraituz. Osagarri modura, egoera txarrean dauden baso eremuak, sasiz betetako zonei eta lurzoru marjinalak "ingurumen hobekuntzako" kategoria esleitu ahalko zaie, baso autoktonoen masak lehengoratzeko.
- l) **Balio agrologiko handiko eremuak.** Udalerrian ez dago balio agrologiko handiko eremu askorik, eta Alzoko-Azpi eta Zuaznabar auzoen inguruan daude daudenak. HAPOko arauetan babestu egingo dira lur haiek, eta ustiatzeko moduan manteduko dira, hau da, ez dira ez hiritartutako ez galduko.
- m) **Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak.** HAPO idazterakoan ondasun arkeologikoaren eta udalerriko ondasun arkitektonikoaren elementuen inbentarioa egingo da, eta zehaztutako horiek elementu horiek babestuko ditu, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera.

Hirigintza arauak babesten dituzten ondare naturalak eta artifizialak inbentariatu eta identifikatzeko katalogo bat egitea gomendatzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/07 Legeak 76. artikuluan ezartzen duena betez.

5. IEBE AZTERKETAREN EDUKIA ETA IRISMENA

IEBE azterketak zer eduki izan behar duen ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeko buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuaren eranskinean ezartzen da. Beste aldetik, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzei buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak I. eranskinean iraunkortasun txostenetarako ezartzen duen informazioa ere eduki behar du IEBE azterketak.

Beraz, arau horiek eskatutako edukiak jaso beharko ditu Alzoko HAPOn ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak, eskema hau erabilita:

5.1.– Planaren edo programaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko aintzat hartutako hautabideak azaltzea.

Puntu horri dagokionez, Hiri Antolaketakoko Plan Orokor berriaren irizpide eta helburu zehatzak azaldu behar ditu ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak, nola helburu eta irizpide orokorrak hala ingurumenari hertsiki dagozkionak, eta aztertu behar du ea helburu eta irizpide ongi egokitzen zaizkien iraunkortasunerako eta ingurumena babestu eta hobetzeko irizpide edo helburu orokorrei, hau da, erreferentziako dokumentu honetako 3. eta 4. ataletan aipatutakoak i.

Hautabideen azalpenari, haien azterketari eta haietako bakoitzaren barruan eraginak izan ditzaketan jarduketan identifikazioari dagokienez, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak hauxe baino ez du egingo oraingoz: aurreko paragrafoan iruzkin dutako helburuak



lortzeko asmoz, Plan Orokorra lantzerakoan kontuan hartu diren hautabideak laburbilduta eta trinkotuta aurkeztu (hala nola, bestelako kudeaketa jarduketak, kokapenekoak, erabileren eta baliabideen esleipenekoak, eta izan daitezkeen esku-hartzeakoak, edota bestelako ekarpenak eta banaketa espazialak, helburu horien arabera), txosten honetako 5.4 atalean zehaztutakoaren arabera egin behar den azterketa xeheagoaren arabera, betiere.

5.2.– Beste plan edo programa batzuekiko elkarrekintzak azt ertzea.

HAPOk antolatutako eremuan edo alderdietan eragina duten planak eta programak identifikatu beharko dira. HAPOk plan eta programa horiekin duen bateragarritasuna aztertu eta egiaztatu beharko da. Gutxienez honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolaketako Jarraibideak (LAJ).
- Tolosaldea Jardute Eremuko Lurraldearen Zatikoa (Aurrerapena)
- EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Alorreko Lurralde Plana.
- EAEko Gune Hezeen Lurralde Arloko Plana.
- Nekazaritza-Basogintzako Alorreko Lurralde Plana (behin betiko onartzeko dagoena).
- Kultura Ondarearen Alorreko Lurralde Plana (Aurrerapena).
- EAEko Uholdeei Aurre Egiteko Plan Orokorra eta haren berrikuspeneko dokumentuak.
- Euskadiko 1994-2030eko Baso Plangintza.
- Altzoko Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana (HAPO lerro estrategikoetan ezarritako helburuei egokitzea, eta haren zehaztapenek Tokiko Ekintza Planean definitutako ekintzak lortzeko ekarpenak egitea).
- Bisoi europarra kudeatzeko plana.
- Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoaren barruan sar tutako fauna eta flora espezieetako populazioen banaketa areak.
- EAEko korridore ekologikoen sarea.
- EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoa.
- EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2002 -2020). EAEko Ingurumen Programa Orokorra (2007-2010).
- Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana (2008 -2012).
- Gipuzkoako uraren erabilera iraunkorrari buruzko jarraibideak.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen alorreko plana (Aurrerapena)
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturei buruzko Lurralde Alorreko Plana (Aurrerapena).
- Euskadi 2010 Energia Politika.

5.3.– Planaren eraginpeko eremua aztertu, diagnostikatu eta baloratzea.

Udalerriaren ingurumen ezaugarrien azalpena egin behar da, baita HAPOren zuzeneko edo zeharkako eraginpean gerta daitezkeen ingurumen-osagaien artapen egoerarena ere, eta 183/2003 Dekretuaren edukiak garatu behar dira, hau da, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak eranskineko 3. atalean ezarritakoak. Azterketan, gainera, ingurumenari dagokionez udalerriak dituen arazo aipagarrienak identifikatu beharko dira. Ikuspegi horrekin, gutxienez alderdi hauei buruzko planoak erantsiko dira, eskala egokian:

- Landaredia eta luraren erabilerak. Landare espezie katalogatuak edo interesekoak landatzeko moduko puntuak edo laukiak identifikatu behar dira.
- Interes komunitarioko habitatak eta beste habitat baliotsu batzuk identifikatuko dira, esate baterako, bertako basoak, zohikaztegiak, eta abar.
- Lurzoruen kalitatea eta maila agrologikoak, balio agrologiko handiko lurzoruak identifikatuz.
- Akuiferoen hauskortasuna.



- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua, edota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituztenak.
- Beste erabilera-muga batzuk dituzten eremuak.
- Soinu mailak.

Era berean, antolatzen den eremuko arrisku naturalen mapa eta HAPOko aurreikuspenetarako lurrek duten harrera-gaitasunaren azterketa gehituko dira. Azterketa horretan kontuan hartuko da, besteak beste, demanda berriak asetzeko behar diren ur baliabideei buruz eta uraren jabari publikoa babesteari buruz administrazio hidraulikoak emandako informazioa.

Azkenik, hiri-metabolismoa eta udalerriko biztanleen bizi kalitatea baldintzatzen dituzten ingurumen eta gizarte eragileak identifikatu eta azalduko dira, esate baterako, uraren zirkulazioa, hondakinen ekoizpena eta kudeaketa, mugikortasunaren askotariko alderdiak, etxebizitzaren beharra, ekonomia jarduerak, eta abar.

5.4.– Teknikoki arrazoizkoak diren hautabideak ingurumen aldetik aztertzea. Hartutako erabakia arrazoitzea.

Planaren helburuak lortzeko aintzat hartu diren hautabideak aztertu behar dira ingurumenaren ikuspegitik. "0" hautabidea edo gaur egungo plangintza mantentzea nahitaez aztertu beharreko hautabideetako bat da..

HAPO idazterakoan kontuan hartzen diren hautabideen azterketa konparatiboa egin behar da, haien eragin nagusiak oinarritzat hartuta, hau da, hurrengo atalean azalduko ingurumenaren osagaietatik modu esanguratsuagoan eta bereizgarriagoan erasandakoen gainean sortzen dituzten eraginak.

Azkenik, arrazoitu egin behar dira behin betiko hartzen diren irtenbideak (ea proposamenak bat datozen alde aurretik egindako kuantifikatze eta dimentsionatze lanei, behar hauek direla -eta: etxebizitzak, industriak, dotazioak, azpiegitura eta zerbitzuak, eta abar), alderdi hauek kontuan hartuta: zenbaterainoko lotura eta doikuntza duten ingurumen kalitate orokorrekiko eta lurralde antolaketa nahiz horren harrera gaitasunarekiko; eta nolako koherentzia duten txosten honetako 3. eta 4. ataletan ezarritako iraunkortasuneko eta ingurumenaren babesteko irizpide eta helburu orokorrekiko.

Jarduketa aurreikusiei buruzko alde aurreko kontsulten dokumentutik ateratzen den informazioan oinarriturik, gutxienez alderdi hauek sartu beharko dira hautabideen ingurumen azterketan:

- a) **Extebizitza kopurua eta tipologia** Extebizitzen kopuruaren eta tipologiaren ikuspuntuetatik abiatuta, hautabideen ingurumen eragina konparatuko da. Hautabide bakoitzari buruz alderdi hauek aztertuko dira:
 - Lurraren okupazioa
 - Eragina paisaian
 - Biztanle kopurua gehitzeak izango lituzkeen ondorioak: uraren demanda gehitzea, hondakin urak gehitzea, hondakinak sortzea eta abar.
 - Energiaren kontsumoa
 - Mugikortasunaren demanda sortzea
- b) **Mugikortasunaren demanda kudeatzea.** Hau da, aparkaleku demanda asetzeko eta Altzo Azpi errepidea zabaltzeko proposatzen diren hautabideetan aztertu egin beharko dira pertsonen mugikortasun demanda kudeatzeko dauden aukera desberdinak, eta



lehetasuna eman zaio ibiltzearen, bizikletaren eta garraio publikoaren aldeko banaketa modalari.

- c) **Hirigintza garapenak, ekipamenduak eta azpiegiturak kokatzeko hautabideak:** Hirigintza garapen berriak gauzatzeko, ekipamenduak eta aparkalekuak kokatzeko, Altzo Azpiko errepidea zabaltzeko eta beste edonolako azpiegitura gauzatzeko proposatzen den hautabide bakoitzari dagokionez, lurren kalitatea eta hauskortasuna baloratu beharko dira. Hori dela eta, proposatutako hautabidea ingurumenaren kalitate hoberenarentzat eta baliabideen kontsumo txikienarentzat egokiena dela arrazoitu beharko da. Beste aldetik, garapen berrien kokapenak baloratu dira baldintzatzaileak izan daitezkeen hainbat alderdiren ikuspuntutik. Baldintzatzaile horietako batzuk dira uholde arriskua, soinuaren igorpena, lur kutsatuak, akuiferoen hauskortasuna eta airearen kalitatea.
- d) **Amategi Aldeko area industrialia zabaltzea.** Kasu honetan ere, c) puntuan planteatzen den azterketa egingo da, baina oraingo honetan bereziki aztertuko da zabaltze hautabideetako bakoitzak ("0" hautabidea edo gaur egungo egoera mantentzea barruan dagoela) zer eragin izan dezakeen Araxes ibaiko interes komunitarioko habitatetan eta espezetan, bisoi europarrarengan eta errekek nahiz erreka-bazterrek duten korridore ekologikoaren funtzioan. Edozein erataria, azkenean aukeratutako irtenbideak alderdi horiei ez diela negatiboki eragiten bermatuko beharko da.

5.5. HAPOk jarraitzen eraginak identifikatu eta baloratzea

Identifikatu eta baloratu egin behar dira HAPOk jarraitzen ingurune osoaren gainean dituzten ingurumen eraginak. Identifikatze eta baloratze hori ez da mugatuko antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak zuzenean izandako eraginetara (esate baterako, hiritartzea dela-eta, zorua okupatzea). Aitzitik, honelako eraginak ere hartuko ditu:

- Proposatutako antolaketa ingurumenean zeharka izandako eraginak (esate baterako, etxebizitza gehiago edo ekonomia jarduera gehiago direla-eta, hondakin ur gehiago sortzea).
- Erabilera eta jarduerak arautzearen ondorioz izandako eraginak (esate baterako, abeletxeak jartzean usain txarrek eragozpenak sortzea, halako jarduerak jartzeko baimena zona jakin baterako bakarrik ematen baitu HAPOk).

Bereziki baloratu behar da zer-nolako eragina izango duen antolaketa, alderdi hauek kontuan hartuta:

- Hiri barruko eta hiri arteko mugikortasuna
- Lurzoruaren okupatzea
- Baliabideen kontsumoa gehitzea (ura eta energia)
- Gai kutsatzaileen isurketaren eta hondakinen sorrera gehitzea
- Zaratak herritarrengan duen eragina
- Udalerriko ibai-erreken kalitatea
- Habitat eta espezie urriak edota interesekoak
- Balio agerlogiko handiko lurzorua
- Paisaia
- Monumentu eta arkeologia ondarea



Iragarri eta identifikatze aldera, 183/2003 Dekretuaren eranskineko 5.2.2. atalean zehaztutakoaren arabera egituratu ahal izango dira ingurumen eraginak.

Identifikatutako ingurumen eragin bakoitzaren ezaugarriak zehaztu eta tamainan nahiz intentsitatean baloratzeko garaian, ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko 1988ko irailaren 30eko 1131/88 Errege Dekretuaren I. eranskinean agertzen den terminologia erabili beharko da. Horretarako, lehenbizi, kaltea egoki deskribatuko duten adierazleak definitu behar dira (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzailak, kuantifikagarriak eta identifikatzeko errazak), eta, ingurumen kalitatearen helburuak xedetzat hartuta, eraginari dagozkion gutxieneko muga onargarriak finkatu behar dira, indarrean dagoen lege erria erreferentziazat hartuta, baita kasuan kasuko organo eskudunen jarraibideak ere.

Atzemandako eraginaren garrantzia erabakitzeke, lege hauetan xedatutakoari jarraituko zaio: plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeko II. eranskina; eta proiektuen ingurumen eragina ebaluatzeke legearen testu bateratua onartzen duen 2008ko urtarrilaren 11ko Erre Dekretu Legegileko III. eranskina.

Beste aldetik, proposatutako jardueretako bateren batek Araxes ibaiko interes komunitarioko lekuari eragiten badiu, ingurumen eraginak ebaluatzeke habitatei buruzko 92/43/CEE Aztertarauaren 6. artikuluan xedatutakoa beteko da, *habitatei buruzko 92/43/CEE Aztertarauaren 6. artikuluko 3. eta 4. puntuetako xedapenei buruzko gida metodologikoan* ezartzen diren irizpideei jarraituz.

5.6. Babes, zuzenketa eta konpentsazio neurrien proposamena

Hartu beharreko babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak hartu beharko dira, HAPOn aurreikusitako jarduketeta eta arauen ondorioz ingurumenean izan daitezkeen eraginak murrizteko edo orekatzeke, 183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6. atalak dioenaren arabera.

Neurrien proposamenak alderdi hauek eduki behar ditu: azpiegitura kokatzeko bai lurzoru hiritarraren bai hiritargarriaren zonakapen bat, erabilerak hartzeko zonek duten gaitasunaren araberrakoa; eraikuntza iraunkorreko irizpide batzuk; eta ingurumen baldintzak, jarduera mota desberdinak garatzeko. Irizpide eta baldintza horiek HAPOk ordenantzan jaso beharko dira. Horrez gain, ingurumenaren gainean ahalik eta eraginik txikiena izateke neurriak ere jaso beharko dira, lanak egin bitartean.

Behin-behineke onarpen agiriak jasotzen duen jarduketeta eta zehaztapan bakoitzerako (sistema orokorrak, lurzoru hiritar, hiritargarri eta hiritarrezinei buruzko alorrak, areak edo unitateak, eta abar), ondorengo helburua izango duten neurri zuzentzaileak jaso beharko ditu HAPOk (ez da zerrenda osoa), dela zuzenean dela garapen plangintzan (plan bereziak, alorreke planak, hiritartze proiektuak, etab.) haien kontsiderazioa berariaz aipatuta:

Eraginik esanguratsuenen gertagarritasuna murriztea (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.1 puntua)

Honelako neurriak hartu behar dira:

- Intereseko landarediari eta faunari ez erasateke edo ahalik eta gutxien erasateke neurriak, baita espezie exotikoak hedatzea saihestekoak ere.
- HAPOk jarduketek hondatutako edo erasandako aldeak pasaia aldetik lehengoratzea.
- Arrisku geologikoak agertzen dituzten aldeak mugatzea.
- Eraikin berrietan ura eta kontsumo energetikoak aurrezteke sistemak ezartzea.
- Lur kutsatuei buruzko 1/2005 Legeak ezarritako irizpideak eta prozedurak aplikatzea.



- Soinuaren eragina kontuan hartzea (pantailak, zarataren aurkako antolaketa, etab.), alde horretatik arazoak sor ditzaketen aldeetan. Hori dela-eta, soinu maila altuak badaude, eremuak hiritartzean kontuan hartu beharrekoa da aukeran dela alorrean egin asmo diren eraikinak erabileren arabera antolatzea, hartara, gutxiago erabiltzen direnek (industria, zerbitzuak) soinu-pantailarena egin dezaten zaratarekiko sentiberagoak diren eraikinentzat (etxebizitzak, eskola ekipamendua, osasun ekipamendua).
- Ur ibilguen naturaltasuna gordetzea edo lehengoratzea (uraren herri jabariaren gainean eta ibai bazterreko landaretzaren gainean ahalik eta eragin txikiena izatea, ubideratze lanetan inženiaritza biologikoko teknikak erabiltzea, eta abar).
- Identifikatutako eta inbentariatutako elementuak eta haien babes erregimena jaso behar ditu hirigintza agiriak, bai kultura ondareko eraikin, multzo eta ele mentuen katalogoan, bai haien hirigintza araudian.

Lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari buruzko neurriak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.2 puntua): ikus erreferentziako dokumentu honetako 4. atala.

HAPOn lurrak zer sailkapen eta kalifikazio izango dituen eta jarduketak non jarriko diren erabakitzeke orduan, kontuan hartuko dira arau eta irizpide hauek: lurraldeko eta alorreko antolamendu tresnak (lurralde antolamenduko arteztarauak, alorreko lurralde planak); ingurumeneko irizpide estrategikotzat jotzen direnak txosten honen 3. atalean eta *Hiri plangintzan aplikatzekoak diren iraunkortasunari buruzko irizpideak* (2003) izaneko gidaliburuan eta *Hiri plangintza iraunkortasuneko irizpideekin idazteko gidaliburua* (2005; *Eusko Jaurlaritzako Lurra Ide Antolaketako eta Ingurumeneko Saila*).

HAPOn lurrak zer sailkapen eta kalifikazio izango dituen eta jarduketak non jarriko diren erabakitzeke orduan

Besteak beste, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Lurzorua gorde beharra, lurzoru hiritarrezina babestu eta zaintzeko, Udalaren lurzoru ondarearentzat garrantzi berezia duten lursailak atxikiz (erosketa, lagapena, desjabetzapena).
- Ordenantzak egitea, lurzoru hiritarrezinean onargarriak diren jarduerak kokatzeko eta garatzeko baldintzak ezartzearren.
- Udalerriko hondakin urak bildu eta tratatzeko sistema egoki bat ezartzea.
- Landa eremuan ura arazteko sistema autonomoak eskatuko dira, saneamendu sare orokorrari lotzea ezinezkoa denean.
- Las actividades industriales deberán garantizar un adecuado tratamiento de sus aguas residuales, para lo que deberán contar con los sistemas de depuración necesarios para el cumplimiento de los objetivos de calidad de las masas de agua.
- Ibai inguruak mugatu eta babes egokia ematea, ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldearen alorreko planari jarraituta.
- Lurzoru hiritarrezinean paisaia aldetik interesa duten lekuak babesteko zonak mugatzea. Paisaian eragin esanguratsua duten proiektuetarako, oro har, baimena emateko moduak direnean, lehengoratze programak gehitu beharra eskatuko da, dagokion lizentzia eman ahal izateko.



- Hondatutako guneak (harrobiak, zabortegiak, hondakindegia, etab.) lehengoratzeko eta egokitzeko sustapena egitea.
- Alorrak hiritartzerakoan mugatu egingo dira urarekiko iragazkorrak ez diren zoladura guneak. Izan ere, komenigarria litzateke terenoaren iragazpen naturalerako gaitasuna mantentzea. Oinezkoen guneetan eta ibilgailuen sarreretan, euri urarentzako material iragazkorrak erabiltzea proposatu behar da.

Ingurumen hiritarra hobetzeko neurriak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.4 puntua):

- Eremuetako gune publikoetan eta eraikin berrietako gune komunetan kontsumo gutxiko eta argi-kutsaduraren kontrako argi sistemak jarri behar dira.
- Eguzkiaren energia-eraginkortasuna hartuko da kontuan egin behar diren eraikinen orientazioak zehazteko, eta, horren ondorioz, hobeak izan daitezkeen bai energiaren erabilera (batez besteko tenperatura handiagoa, berogailuen kontsumo txikiagoa, etab.) bai eguzki argiaren aprobetxamendua (elektrizitatearen kontsumo txikiagoa).
- Inguruaren ingurumen ezaugarriak kontuan hartuta, eta eraikinak inguruko paisaiari egokitzeko eta ikusmen trabak saihesteko, udalerriko eraikuntza tipologiarekin eta estetikarekin bat datozen eraikuntza baldintzak zehaztu behar dira (materialak, kolor eak, morfologia, altuerak, bolumenak, etab.).
- Eraikinetako fatxaden tratamendua desberdina izatea komeni da, orientazioaren arabera: iparraldekoa itxiagoa eta isolatzaileagoa, eta hegoaldekoa irekiagoa eta beira gehiagoz hornitua.
- Eraikuntzan erabiliko diren materialak ahal den isolamendu termikorik handiena izango dute eta, halaber, ahal den iraunkorrenak eta gutxien kutsatzen dutenak izango dira.
- Eraikinetako barne antolamenduan, gehien erabiliko diren tokietan eguzkia eta argi naturala ahal den guztia aprobetxatzeko moduko espazio banaketa egingo da. Hala badagokio, barne antolamendu horrek ere kontuan izan behar du zaratarekin egon daitezkeen arazoak; horregatik, zaratareko sentikortasun handiena duten guneak (logelak, egongelak, etab.) zarata sortzen duten fokuetatik ahal den urrunen jarri behar dira.
- Eraikuntza Kode Teknikoaren arabera, eguzki kaptadoreak eta metagailuak ezarri behar dira ur beroaren edota berokuntzaren banaketarako, eta ura aurrezteko sistemak jarri ote daitezkeen aztertuko da.
- Erabilera eta jarduerak baimentzeko orduan kontuan hartuko da udalerraren zarata -mapan egindako zona banaketa.
- Irisgarritasun eta mugikortasun planak idatziko dira.
- Hiri hondakinen gaikako bilketarako gune egokiak aurreikusiko dira.

Neurri konpentsatzaileak (183/2003 Dekretuaren Eranskineko 6.3.5 puntua):

- Gaur egun iragazgaitzak diren azalera naturalizatzea, hiritartu bitartean azalera iragazgaitzak sortzea konpentsatzeko.



- Ubideen ibilgu tartek naturalizatzea, ubideen bideratze edo aldatze lanak konpentsatzeko.
- Lehengoratzeko neurriak hondatutako guneetan, HAPOren ondorio diren jarduketek intereseko habitatetan duten eragina konpentsatzeko.
- Korridore biologikoak sortzea, azpiegitura linealak egiteak sortzen duen zatiketa konpentsatzeko.

5.7.- Planaren eraginak gainbegiratzeko eta ingurumeneko helburuak betetzeko programa.

HAPOren aldaketan proposatutako jarduketei dagokienez, helburua ingurumenaren kalitatea babestuko dela bermatzea da eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketan proposatutako neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak beteko direla.

Horretarako, jarraipena egin behar zaien ingurumeneko sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatu, eta jarraipenaren adierazleak eta metodologia finkatu behar dira (datuak hartzeko estrategiak, muga edo erreferentzia mailak, maiztasuna, langileak, aurrekontua, aldiak aldiko txostenak, eta abar), helburu hauek kontuan harturik: identifikatutako inpaktu adierazgarri bakoitzaren jarraipena egitea, babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak betetzea eta neurri horiek eraginkorrak izatea.

Aldi berean, adierazle multzo bat definitu beharko da ingurumen helburuak betetzearen jarraipena egin ahal izateko. Ingurumen helburuen arabera, iraunkortasun adierazle hauek erabil daitezke: Tokiko Agenda 21aren jarraipenean erabilitakoak (*Udalsarea 21eko adierazleak. 2003. IHOBE gidaliburuan daude definituta*), edo *Iraunkortasun irizpideko hirigintza antolamendua. 2005. IHOBE* argitalpenean proposatuak, edo HAPOko ingurumen helburuei egokitzen zaizkien beste batzuk.

Nolanahi ere, jarraipen adierazleak betetzearen helburuak, atalaseak eta irizpideak definitu behar dira, baita haien datu-hartzerako eta kalkulurako programa bat ere. Irizpide horiek eta programa hori hirigintza-kudeaketa bertan integratu daitezke edo Tokiko Agenda 21eko prozesuaren barruan garatu. Edozein eratar, adierazlearen bilakaeran HAPOk zertan eragiten duen identifikatu behar da.

5.8.- Laburpena

183/2003 Dekretuko eranskinaren 8. atalean xedatutakoaren arabera, laburpen bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta jendeak ondo ulertzeko modukoa emango duena, aurreko puntu guztietan bildutako informazioaren berri emateko. Dokumentazio grafikoa eranstea ere gomendatzen da, jendaurrean ikusgai jartzen denerako.

5.9.- Hautabideen eta neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena

Bideragarritasun ekonomikoari buruzko txosten bat idatzi behar da, alderdi hauek kontuan hartuta: hautabideak eta Plan Orokorra ezartzeak sor litzakeen eragin kaltegarriak prebenitu, murriztu edo arintzeko neurriak.

6. INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODUAK

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. eta 10. artikuluetan ezarritakoa betez, informazio eta kontsulta moduei dagokienez, Altzoko Udalak jarduketa hauek egingo ditu:

a) Eraginpeko herri administrazioei eta interesa duen publikoari kontsultatzea, Planaren lehen agiriaren bitartez eta haren Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketaren bitartez.



b) Planaren lehen agiria eta haren Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa jendaurreko informazioan jartzea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarkia argitaratuz, gutxienez 45 egun emanda haiek aztertzeko eta oharrak egiteko.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira eraginpeko herri erakundetzat eta interesa duen publikotzat: erreferentzia agiri hau idazterakoan Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultaturiko administrazioak eta erakundeak (agiri honetako 2. atala), eta Udalak identifika litzakeen herri mailako erakundeak (auzotarren elkarteak, herritarren foroak eta beste entitate batzuk).

7. INGURUMEN ERAGINARI BURUZKO AURRETXOSTENAREN ESKAERA

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzeari buruzko 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak 17. artikuluan ezarritakoa betez, irizpide eta irtenbide orokorren gaineko erabakia hartu aurretik, edo, hala badagokio, HAPO hasieraz onartu aurretik, Altzoko Udalak Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari eskatu behar dio ingurumen eraginari buruzko aurretxostena egin dezan, eta eskaera hari erantsi behar dizkio Planaren aurrerapenaren edo lehen agiriaren eskaera, eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketarena, erreferentzia agiri honetako 3. atalean zehaztutako edukia duena.

Donostia, 2008ko irailaren

INGURUMEN EKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA